



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALBATZARRAK 2014ko URRIAREN 28an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2014ko urriaren 28an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 20.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Onintza Gorostidi Murua
Jose Ramon Hernandez Cristobal
Leire Otegi Elola
Uxue Etxebeste Eizagirre
Koldobika Jauregi Zinkunegi

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1. Aurreko bilkuretako akten onespena.**
 - 2014ko irailaren 30ean egindako ohiko bilkuraren akta.
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. Arritzaga-berri etxean terraza txiki bat etxeko albo batean ateratzeko obra baimena eskaera, A.A.**
- 5. 2015 urterako udal ordenantza fiskalak eta udal zerbitzuengatikoko tasa eta prezio publikoen ordenantzak onartzea, hala bada.**
- 6. Tolosaldeko Atariak eginiko diru-laguntza eskaera aztertu, hala bada.**
- 7. Alkizako Herri eskolak eginiko eskaera aztertu, hala bada.**
- 8. Beste batzuk.**
- 9. Erregu, galdera eta mozioak.**
- 10. Beste batzuk.**
- 11. Erregu, galdera eta mozioak.**

.../...



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LEHENENGO PUNTUA **AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA**

- 2014ko irailaren 30eko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Akta Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

47/2014 Alkatetza Ebazpena, urriaren 1ekoa, Alkizako udala fakturen hartzailea denean, fakturak bide elektronikoz egiteko estandarrak onartu eta fakturak bidaltzeko baldintzak eta prozedura ezartzen duena, ebazten duena.

48/2014 Alkatetza Ebazpena, urriaren 8koa, Publizidadetik gabeko prozedura negoziatuz egindako Alkizako herri ostatuaren errentamendu eta ustiapenaren lizitazioa hutsik deklaratzeko, ebazten duena.

49/2014 Alkatetza Ebazpena, urriaren 9koa, prozedura zuzenez, herri ostatuaren zerbitzu publikoaren kudeaketaren esleipena ematea, ebazten duena.

50/2014 Alkatetza Ebazpena, urriaren 14koa, J.K.E. jaunak eginiko obra baimena eskaera onestea, ebazten duena.

HIRUGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

- PAISAIA	16.954,36€
- ARGITU ASESORES	172,82€
- TRANSPORTES URBIA	363,00€
- TOLOMENDI	122,40€
- QUISER	190,83€
- QUISER	129,98€
- JAM ESPRESION	963,00€



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

- LAU HAIZETARA	556,60€
- CORREOS	220,42€
- ELECTRICIDAD ZIZURKIL	485,28€
- VULCO	232,00€
- TRANSPORTES ALBERTO ROTETA	992,20€
- ENEKO ITURBE	160,00€
- ULAHI	526,35€
- ALIRI ARTEK, S.L.P.	6.292,00€
- AUDAX	182,15€
- AUDAX	131,19€
- AUDAX	125,34€
- AUDAX	318,93€
- AUDAX	568,91€
- AUDAX	190,94€
- EUSKALTEL	127,71€
- MOVISTAR	205,31€
- MOVISTAR	211,22€

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **30.422,94** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARREN PUNTUA

ARRITZAGA-BERRI ETXEAN TERRAZA TXIKI BAT ETXEKO ALBO BATEAN ATERATZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, A.A.

Ikusirik A.A. andreak eginiko eskaera, non Arritzaga-Berri etxearen albo batean terraza bat egiteko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik 2014ko urriaren 10ean, Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean dioena:

“ALKIZAKO ARRITZAGA-BERRI ETXEAREN ALBO BATEAN TERRAZA BAT MOLDATZEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA

A.A.E. andreak, Arritzaga-berri etxearen albo batean terraza bat moldatzeko baimena eskatzen du, lanen aurrekontu eta argazki batzuk aurkezten dituelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, ZERA ADIERAZTEN DUT:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

2014-ko irailaren 12-an aurkeztutako eskariaren arabera, eraikinaren albo batean blokez egindako terraza bat egin nahi zen, lanen aurrekontua BEZ-a gabe 2.951,00€koa izanik.

Eraikinaren itxura orokorra eta neurriak hobe ulertzeko dokumentazio gehigarria eskatzen zaio A.A.-ri, eta urriaren 3an, beste bi argazki aurkezten dira udaletxean, egin nahi dena, gainean marraztuz.

Terraza berriak 35m² izango lituzke eta bere itxura, behetik datorren bidea eta lehenego solairuko alturak konformatzen dute.

Alkizako Hiri antolaketako 6º artikulua, egun dauden mota guztietako eraikinen kanpoaldeko itxuraren aldaketek hirigintza lizentzia behar dutela esaten du.

Arritzaga-berri etxea, Alkizako lur ez hiritargarran kokaturik dago, bereziki Erabilerarik Esleitu Gabeko lurrian. Arau subsidiarioen arabera eraikinak ez du inolako katalogazio edo babes berezirik.

Alkizako lur ez hiritargarriaren araudiaren arabera, fatxadako akaberak, argiak, zarpiatuak, pintatuak edo harrizkoak izango dira. Aurrekontuan, terrazaren pareta gris koloreko harrizko monokapa batez zarpiatuko dela esaten da, aurreko puntua beteaz.

Eraikinen Kode Teknikoaren Erabileraren Segurtasuna arautzen duen CTE-SUA dokumentuaren arabera, desnibetan erortzeko arriskua mugatzeko, babesteko oztopo edo barrera bat egon beharko da. Desnibelaren altura ikusiaz, terraza berriari jarri beharreko barandak, 0,90m-ko altuera bat izan beharko du gutxienez.

Beraz, eskarian azaltzen diren lanak Alkizako araudiarekin bat datozenez, eta barandarena betetzen bada, lanak legeztargariak direla informatzen dut.

**Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauko segurtasun neurriak gorde beharko dira.*

**Lanak amaitzean, terrazaren argazki bat eta eraispen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean."*

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: A.A. andereak eginiko obra baimena onestu, hau da, Arritzaga-Berri etxearen albo batean terraza bat egiteko obra baimena ematea. Betiere,



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

2014ko urriaren 10ean, Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean jasotzen diren baldintzak betetzen baditu.

BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri A.A. andreari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

2015 URTERAKO UDAL ORDENANTZA FISKALAK ETA UDAL ZERBITZUENGATIKO TASA ETA PREZIO PUBLIKOEN ORDENANTZAK ONARTZEA, HALA BADA

Ikusirik 2015 ekitaldirako Ordenantza Fiskal eta Tasa eta Prezio Publikoen udal ordenantzak eguneratzeko eta aldatzeko, egindako ondorengo proposamena:

- ZERGAK

1. Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kuotak zehazteko funtsezko elementuak arautzen dituen ordenantza fiskala.

Tarifak mantentzea proposatzen da.

Beraz, Ordenantzaren eranskina era honetara gelditzen da:

- Hiri Ondasun Higiezinaren gaineko zergari aplikagarri zaion karga tasa zoru industrial edo tertziarioan: %0,198a.
- Gainerako hiri ondasun higiezinari aplikagarri zaion karga tasa: %0,198a.
- Landalur Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa: %0,892a.

Hobariak mantentzea proposatzen da:

-Kuota osoaren % 30eko hobaria subjektu pasiboak famili ugarien titularrak direnean.

-Kuota osoaren % 25eko hobaria, eguzki energiaren aprobetxamendu termikoa edo elektrikorako sistemak instalatuta dituzten ondasun higiezinarako.

-Obra berriko higiezinak edo urbanizazio prozesuan daudenak % 50.

2. Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren ordainarazpenerako zenbait ahalmen arautzen dituen ordenantza fiskala.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ordenantzaren eranskina mantentzea proposatzen da:

Zerga honen kuotak zehazteko finkatutako gutxienezko kuoten gehikuntza-koefizientea % 1,68-an mantentzea proposatzen da.

3. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren kuota zehazteko funtsezko elementuak arautzen dituen Ordenantza Fiskala.

%1,60ko koefizientea aplikatzea proposatzen da.

Beraz, Ordenantzaren eranskina era honetara aldatzea proposatzen da:

Ibilgailu mota eta potentzia Koefizient. % 1,60

A)Turismoak:	<u>Euroak</u>
9 zaldi fiskal bitartekoak.....	28,84
9 - 11,99 zaldi f. bitartekoak.....	57,69
12 - 13,99 zaldi f. bitartekoak.....	102,17
14 - 15,99 zaldi f.bitartekoak.....	134,62
16 - 19,99 zaldi f.bitartekoak.....	173,08
20 zaldi fiskaletik gorakoak.....	211,55
B)Autobusak:	
21 plaza bitartekoak	133,28
21 - 50 plaza bitartekoak.....	189,82
50 plazatik gorakoak	237,28
C)Kamioiak:	
1.000 kg. Bitarteko karga erabilgarria.....	67,65
1.000 - 2.999 kg. bitarteko k.e.....	133,28
2.999 - 9.999 kg. bitarteko k.e.....	189,82
9.999 kg-tik gorako k.e.....	237,28
D)Traktoreak:	
16 zaldi fiskal bitartekoak.....	28,27
16 – 25 zaldi f. bitartekoak.....	44,43
25 zaldi fiskaletik gorakoak.....	133,28

E)Trakzio mekanikoko ibilgailuen atoi eta erdi-atoiak:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

750-1000 kg. bitarteko karga erabilgarria.....	28,27
1.000 - 2.999 kg. bitarteko k.e.....	44,43
2.999 kg.tik gorako karga e.....	133,28

F)Gainerako ibilgailuak:

Ziklomotoreak.....	7,07
Motozikletak: 125 z.k. bitartekoak.....	7,07
Motozikletak 125 - 250 z.k. Bitartek.....	12,11
Motozikletak 250 - 500 z.k. Bitartek.....	24,24
Motozikletak 500 - 1.000 z.k. Bitartek.....	48,46
Motozikletak 1.000 cctik gora.....	96,93

1.4.Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskala.

Ondorengo tarifak eta hobariak mantentzea proposatzen da.

- Nekazaritza-Abeltzaintzako esplotazio munduari lotutako ekitaldi, eraikuntza, obra... benetako kostuaren % 2,5
 - Babes Ofizialeko etxebizitzak. Benetako kostuaren % 2,5
- Besteak: % 5,00

HOBARIAK:

1,-% 50 eko hobaria, eraikuntza, instalazio eta obrak ezgaitasun bat duten pertsonen irisgarritasun eta bizigarritasun baldintzak errazten dituztenean. Ondoren aipatzen diren baldintzak bete beharko dira:

-Ezgaitasun kalifikazioa edukitzea.

-Mugikortasun baremoan, gutxienez, 7 puntu izatea.

-Kuota zehazteko, obraren aurrekontu osoa hartuko da kontuan, baldin eta obraren helburu bakarra eraikina ezgaitasunen bat duten pertsonen sarbide eta bizi baldintzak hobetzea bada.

-Obrak eraikina berritzeko helburua badute, baina aurrekontuan beste partida batzuk ere jasotzen badira ezgaitasunen bat duten pertsonen sarbide eta bizi baldintzak hobetzeko egokitzapenez gain, dagokion partidak bakarrik hartuko dira kontuan hobaria eskubidea duen kuota zehazteko. Horretarako, nahitaezkoa izango da aurrekontua ondo bereizita aurkeztea helburu hori duten obren zatian.

2.-Abelgorrientzako estabulazio berriak eraikitzeak eta baita ere Udal Planeamenduko AA.SS.etako katalogoan sartutako eraikuntzak berritzeko eta birgaitzeko obrak, hain zuzen ere Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailaren txosten baimenean bildutako baldintzak garatuz babestuko diren elementu



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

berezietan egin daitezkeen jarduerak helburu dutenak. Zerga kuotaren % 95eko hobaria izango dute.

1.5. Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala.

Ondorengo tarifak proposatzen dira:

Portzentaiak:

- a) 1 urte 5 urtera bitarteko % 3,6
- b) 10 urte artekoa % 3,4
- c) 15 urte artekoa % 3,1
- d) 20 urte artekoa % 2,9

Karga tasa: % 6-ra igotzea proposatzen da.

2. TASAK

2.1. Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko tasak arautzen dituen Ordenantza.

2.1.1. Ur horniketa.

Tarifen modifikazioan burututako proposamena mantentzearena izan da:

- Etxeko erabilerako ur hornidura:

- * Gutxienerako 45 m³ 10,91 euro.
- * Sei hilabeteko 45 m³ gutxieneratik aurrera: 0,35 euro.

- Merkatal edo industri erabilerara zuzenduriko ur hornidura:

- * Gutxienerako 90 m³ 28,50 euro.
- * Sei hilabeteko 90 m³ gutxieneratik aurrera: 0,42 euro.

- Udalerritik kanpo kokaturiko eraikinetako ur hornidura:

- * M³ bakoitza 0,77 euro.

- Mantenimendu kuota 9,18 euro sei hilabeteko

- Hondakinen isurketen kuota (Plazako auzoa) Ur errezioboaren % 34,00a



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Hobariak: Gizarte ongizate zerbitzuak proposatutakoak

2.1.2. Zabor bilketa zerbitzua

Tarifen modifikazioan burututako proposamena tarifak jeistea da:

Etxez-etxeko bilketa, hileko.....12,21 euro
Industria, komertzio eta taberna bilketa, hileko..... 22,80 euro

HOBARIAK: Gizarte ongizate zerbitzuak proposatutakoak

2.1.3. Dokumentu administratiboen igorpena:

Ordenantzaren eranskina mantentzea proposatzen da:

- * Jarduera baimenak: 225euro.
- * Animalia arriskutsuen inskripzioa: 25 euro.
- * Hirigintza kontsultak: 65,00 euro.
- * Segregazio baimenak. 65,00euro.
- * Lehen erabilera baimenak 65,00 euro.
- * Lur mugimendurako baimenak.....0,20 m³ bakoitza
- * Don Juanena etxeko kirol gelarako bazkietza urtekoa...60€
- * Don Juanena etxeko kirol gelarako bazkietza hiruhilekoa...20€
- * Don Juanena etxeko kirol gelarako bazkietza hilerokoa...10€
- * Don Juanena etxeko kirol gela erabiltzea.....2€ eguneko

2.1.4.- Udal bide publikoen lurzoruan, zorupean edo hegalduran erabilera privatibo edo aprobetxamendu bereziak egiteagatiko tasa.

Tarifak mantentzea proposatu da.

2.1.5.- Hilerriko zerbitzuengatiko tasa.

Ondorengo tasa mantentzea proposatu da:

- Lurperatze tasa: 160,00 euro.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik Udaleko Behin behineko Idazkari Kontuhartzaileak 2014ko urriaren 21ean egindako txostena, zeinetatik ondorioztatu daitekeen aipaturiko proposamenak araubidearekin bat datozela.

Gaia azterturik Udalbatzak aho batez ondorengo,

ERABAKITZEN DU

LEHENA.- Aipaturiko proposamena akordioa bihurtzea eta beraz, azaldutako baldintza beretan onestea.

BIGARRENA.- Aurreko puntuak aipatzen dituen akordioak jendaurrean jartzea 30 lanegunez, ondorioztatu daitezken erreklamazioak edo oharren efektuetarako. Horretarako dagokion iragarkia argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko Iragarki Taulan.

HIRUGARRENA.- Hartutako akordioak eta Ordenantzen eta beraien GEHIGARRIEN aldaketak behin-betikoak bihurtuko dira, beste akordio berriren beharrik gabe, informaziorako arauzko epea pasa ondoren inolako erreklamaziorik edo oharrik egin ez balitz. Beraz, 2015 urteko urtarrilaren 1ean ipiniko lirateke indarrean Ordenantza Fiskal eta Tasa Publikoen Ordenantza berriak.

LAUGARRENA.- 2015 ekitaldirako ondorengo Zerga Egutegia finkatzea:

2014 ekitaldirako ondorengo Zerga Egutegia finkatzea:

1.- HOBARI ESKAERA:

- 2015 urteko otsailaren 2tik martxoaren 2arte.

2.- TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUAK:

2015 urteko maiatzaren 4tik uztailaren 6 arte.

3.- URA TASA:

1. seihilabetea: 2015 urteko iraila 1etik azaroaren 2a bitartean.
2. seihilabetea: 2016 urteko otsailaren 1etik apirilaren 1a bitartean.

4.- ETA ZABORREN TASA:

- 1.seihilabetea: 2015 urteko uztailaren 1etik irailaren 1a bitartean.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

2.seihilabetea: 2016 urteko urtarrilaren 4tik martxoaren 4ra bitartean.

SEIGARREN PUNTUA
TOLOSALDEKO ATARIAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA AZTERTU, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldeko Atariak eginiko diru-laguntza eskaera, non biztanleko 5€tako diru-laguntza eskaera egiten duten eta hiru urteko hitzarmen onespena eskatzen duten.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldeko Atariak eginiko diru-laguntza onestu, baina 3€ biztanleko.

BIGARRENA: Hiru urterako hitzarmena onestu, bertan 3€ biztanleko diru-laguntza onesten delarik.

HIRUGARRENA: Alkate-Lehendakaria ahalmenu aipaturiko hitzarmena sinatzeko.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Tolosaldeko Atariari ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA
ALKIZAKO HERRI ESKOLAK EGINIKO ESKAERA AZTERTU, HALA BADA

Ikusirik Alkizako Herri eskolak eginiko eskaera, ondorengoa diolarik:

“Idatzi honen bidez, ikastetxean egindako pintaketa-lanak eskertzeaz gain, zenbait eskaera egiteko asmoz zuzentzen gatzaizkizu:

1.Ikastetxearen sarrera barandila batez ixteko aukera aztertzea nahi genuke. Txikienek batez ere babesteko eta aterpe modura erabiltzeko egokia iruditzen zaigu.

2.Astelehen arratsaldetan BARATZA tailerra egiten hasi gara eta lurra jartzeko egurrezko bi kaxa lortu ditugu. Hiru metro inguruko kaxak dira, eta frontoi atzekaldean jartzeko baimena eskatzen dugu.

3.Konpostagailu bat ere gustura hartuko genuke.

Zehaztapen gehiago behar izanez gero, gurekin harremanetan jar zaitezkete.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Aurkeztutako eskaerak aztertu eta hausnartuko dituzuelakoan, aldez aurretik eskerrak ematen dizkizuegu.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek , aho batez, ondorengoa,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- Alkizako Herri eskolak eginiko lehenengo eskaera onestu, hau da, Ikastetxearen sarrera ixtea.

BIGARRENGOA: Alkizako Herri eskolak eginiko bigarrenengo eskaera onestu, hau da, Baratza tailerra egiteko hiru metro inguruko kaxak frontoi atzekaldean jartzeko onespena ematea, kokalekua herri langileak adieraziko du.

HIRUGARRENGOA: Alkizako Herri eskolak eginiko hirugarrenengo eskaerari buruz, jakitera ematea frontoiaren atzekaldean dagoen konpostagilua barnetegia eta eskolarentzat dela, beraz, hori erabili dezaketela.

LAUGARRENGOA: Erabaki hauen berri Alkizako Herri eskolari ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

8.1.ALKIZAKO TOKIKO AGENDA 21eko 2. EKINTZA PLANAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Alkizako Tokiko Agenda 21eko 2. Ekintza plana prestatu dela, bertaratuek dokumentua aztertu dutelarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako Tokiko Agenda 21eko 2. Ekintza plana onestea.

8.2.LANKIDETZA HITZARMENAREN ONESPENA, ALKIZAKO UDALA ETA TOLOMENDI ARTEAN, HERNIO GAZUME KBE BARNEKO TOLOSALDEKO UDALERRIETAN AGROEKOLOGIA SUSTATZEKO EGOKIAK IZAN DAITEZKEN LURSAIL, KANDIDATO ETA EKIMENAK ZEHAZTEKO



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

AZTERKETA EGITEKO TEKNIKARIA HAUTATU ETA KONTRATATZEKO

Ikusirik Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuak Alkizako Udalari esleitu diola Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalei nekazaritzan enplegu berdea sustatzeko laguntza, Tolosaldeko udaletan lursail eta kandidatu azterketa egiteko, 9 hilabetetan teknikari baten lana finantzatzen laguntzeko.

Ikusirik aipaturiko teknikaria kontratatu ahal izateko egokia ikusten duela Tolomendi Landa Garapen Elkarteak, egokiena dela teknikari hori hautatu eta kontratatzeke, egin behar duen lana, Hernio Gazume KBE barneko Tolosaldeko udalerrietan izango delako.

Ikusirik, prestatu dela Lankidetzak-hitzarmena, Alkizako udala eta Tolomendi artean, Hernio Gazume KBE barneko Tolosaldeko udalerrietan agroekologia sustatzeko egokiak izan daitezken lursail, kandidato eta ekimenak zehazteko azterketa egiteko teknikaria hautatu eta kontratatzeke.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Lankidetzak-hitzarmenaren onespina, Alkizako udala eta Tolomendi artean, Hernio Gazume KBE barneko Tolosaldeko udalerrietan agroekologia sustatzeko egokiak izan daitezken lursail, kandidato eta ekimenak zehazteko azterketa egiteko teknikaria hautatu eta kontratatzeke.

BIGARRENA: Alkate-Lehendakari jauna ahalmenu, aipaturiko Lankidetzak-hitzarmena sinatzeko.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Tolomendi Landa Garapen Elkarteari ematea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

9.1.ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN ONESPENA: EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

Ondoren EUDEL –ek aurkezturiko ondorengo adierazpen instituzionala aztertzen da:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

“Azaroaren 25a ‘Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna’ da. Hori dela eta, Alkizako Udalak bere gaitzespen irmoa erakusten du indarkeria sexistako agerpen mota guztien aurrean; izan ere, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen emaitza dira.

Eraso eta portaera sexistak ez dira indibiduo batzuen jarrera isolatuak, ezpada mundu osoan indarrean dagoen sistema baten parte. Sistema horren bitartez, emakumeen indarkeria ahalbidetzen da, haurtzarotik hasi eta euren bizitza osoan zehar. Hainbat neurritako jarduera oldarkor eta matxistak dira, baina denek egiten diete eraso – zuzenean edo zeharka– emakumeen osotasunari, askatasunari eta gaitasunari. Zoritxarrez, oraindik ere, emakumeen aurkako erasoak baimentzen eta legitimatzen dituzten jarrera eta portaera ugari antzematen dira gizartean; esate baterako, erasoak jasan dituzten neskek eta emakumeek jarritako salaketan egiazkotasuna zalantzan jartzea, botere-espazioetatik indarkeria hutsaldu eta justifikatu nahian eta gaiari garrantzia kendu nahian egiten diren adierazpen publikoak, edo komunikabide batzuek indarkeriari ematen dioten tratamendu azaleko eta sentsazionalista, besteak beste.

Erakunde publikoek gure jardueraren erdigunean jarri behar dugu indarkeria sexista mota oro errotik suntsitzeko ahalegina. Horretarako, beharrezkoa da programa egonkor eta jarraituak garatzea, indarkeriarik gabeko gizartea lortu ahal izateko. Era berean, programa horiek baliabide ekonomiko eta pertsonalez hornitu behar dira.

Indarkeria mota guztiak desagerrarazteko gure konpromiso aktiboan, gure herriko neska eta mutil gazteekin indarkeria sexista prebenitzeko lanaren aldeko apustu irmoa egiten dugu; izan ere, herri honetan indarkeria matxistak duen eragina arduratzen gaituen errealitatea da. Hori dela eta, aurten ere, jende gaztearekin lan egiten jarraitzen dugu, Beldur Barik programaren markoan.

Erakunde publikoek arlo horretan garatu eta sendotu behar ditugu berdintasun politika publikoak, Berdintasun Sailen gidaritzapean, eta Hezkuntza eta Gazteria Saileratik ere politika estrategikoekin indarrak batzeko ahaleginean. Hori guztia, indarkeria sexista prebenitzeko Beldur Barik programaren markoan, betiere, helburu nagusi batekin: esparru guztietatik, emakume gazteen jabeakuntza ahalbidetuko duten eta desberdintasun eta indarkeria egoeren aurrean erantzuteko duten gaitasuna sustatuko duten politikak garatzea. Politika horiek, era berean, lana eta gogoeta sustatu behar dute mutilekin, euren protagonismoari eta indarkeria matxistan duten erantzukizunari buruz, erasoak zer den eta zer ez identifikatzeko dituzten zailtasunei buruz, erasoetan daukaten parte-hartze aktiboari buruz edo eraso baten aurrean ikusle pasibo gisa hartzen duten paperari buruz.

Beldur Barik estrategia hauetan egingo den lanari esker, indarkeria onartzen duten, indarkeria justifikatzen duten edo erasoak eta emakumeenganako jarrera diskriminatzaileak hutsaltzen dituzten diskurtsoak onartuko ez dituen eta naturalizatzen hartuko ez dituen gizartea eratzen joango da.

Hori guztia dela eta, Alkizako Udalak konpromisoa hartu du:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

1. *Beldur Barik programaren edukiak garatzeko, gazteak indarkeria matxistaren gainean sentsibilizatu eta hura prebenitzeko moduak lantzeko tresna gisa.*
2. *Bere eskumenen esparruan eta indarreko legeria aplikatuz, berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako udal politika aktibo, integral eta koordinatua garatzeko.*

Eta, era berean, herritarrei gonbit egiten die konpromiso pertsonalak eta kolektiboak hartzeko, emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren alde, baita edozein indarkeria edo diskriminazio sexista/matxista gaitzesteko ere.

Azkenik, gonbit egiten dizue, bereziki neska-mutil gazteei, azaroaren 25ean, 'Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna' dela-eta izango diren ekitaldietan era aktiboan parte hartzera."

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, Eudelek aurkezturiko adierazpen instituzionala: Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna, bere osotasunean onesten da.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 22.20 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.